- Batez besteko errentak gutxienez 757 €/ hileko dira Martutenen, eta gehienez 1.150 €/ hileko Aieten.
- Kalkuluen arabera, Donostian 311 etxebizitza handi egon daitezke, guztira 3.017 etxebizitza. Etxebizitza horien % 62 pertsona fisikoen esku daude.
- Erabilera turistikorako 1.395 etxebizitza daude, Erdialdean eta Grosen kontzentrazio handia dutenak.

6. Etxebizitza-programak eta -politikak:

- Donostiako Etxegintzak babestutako 2.087 etxebizitzako parkea du hirian.
- Alokairuko etxebizitza babestuak 2.269 dira, Benta Berri enpresa pribatuaren 510 etxebizitzak barne. Donostiako Etxegintzak 1.205 etxebizitza ditu, Eusko Jaurlaritzak 294 eta Alokabidek 260.
- Amara Berri auzoan 526 etxebizitza babestu daude alokairuan.
- Gaztelagun eta Bizigune bezalako etxebizitza babestuen eta alokairu eskuragarriaren programek eragin positiboa izan dute, baina mugatua udalerrian.



DONOSTIAKO ETXEBIZITZA PLANA

BIZITEGI-MERKATUKO TENTSIO EREMU IZENDATZEA

2025ko urtarrila



Aurkibidea

1. Lanaren misioa, ikuspegia eta balioak	3
2. Planaren estrategia orokorra	6
3. Estrategiaren garapena (ekintzen fitxak)	12
4. Planaren egutegia	45
5. Planaren jarraipena eta ebaluazioa	50
6. Jasotako ekarpenak	55



1

Misioa, ikuspegia eta balioak

Misioa, ikuspegia eta balioak

Misioa

Donostiako Etxebizitza Planaren xedea da kalteberatasun-egoera berezian dauden kolektiboen bizitegi-premiei erantzutea, etxebizitza duina arrazoizko prezioan eskuratzea bermatuz, batez ere dagoeneko eraikita dagoen hiriaren gainean jardunez, eta, horrez gain, etxebizitzaren eta eraikinen bizigarritasun-, irisgarritasun- eta energia-eraginkortasuneko baldintzak hobetzea, etxebizitza hutsak mobilizatzea eta alokairuko etxebizitzaren eskaintza handitzea prezio eskuragarrietan.

Ikuspegia

Donostiako Udalaren ikuspegia da hiriko etxebizitza-parkeak, eraikinek eta inguruneek baldintza egokiak izatea bizigarritasunari, segurtasunari, irisgarritasunari, efizientzia energetikoari, malgutasunari eta aniztasunari dagokienez, eremu horiek herritar guztien beharrei erantzuteko gai izan daitezen eta etxebizitzaren ordainketa bizikidetza-unitateen diru-sarreraren % 30 baino txikiagoa izan dadin.

Misioa, ikuspegia eta balioak

Balioak


- Gizarteratzea eta gizarte-kohesioa
- Genero-berdintasuna
- Irisgarritasun unibertsala
- Iraunkortasuna eta ingurumenarekiko errespetua
- Gardentasuna eta herritarren parte-hartzea
- Informazioa eta aholkularitza
- Erakundeen arteko eta gizarte- eta ekonomia-eragileekiko lankidetzatza
- Berrikuntza
- Efizientzia baliabide publikoen kudeaketan
- Erraztasuna eta komunikazioa



2

Planaren estrategia orokorra

4 ARDATZ ESTRATEGIKO



Planaren estrategia orokorra

PLANAREN ESTRATEGIA		
1. ARDATZA. ALOKAIRU ESKURAGARRIA SUSTATZEA		
1.1 estrategia Babes publikoko bizitegi-erabilerako etxebizitzaren kopurua handitzea, batez ere alokairu-erregimenean	1.1.1. ekintza	Babes publikoko etxebizitzak sustatzea, bereziki alokairu-erregimenean
	1.1.2. ekintza	Zuzkidura-bizitokiaren sustapena bultzatzea
	1.1.3. ekintza	Gero eta eskari dibertsifikatuagoari erantzuteko formula berriak bultzatzea
	1.1.4. ekintza	Sektore pribatuarekin lankidetzan aritzea alokairuko etxebizitza eskuragarrien eraikuntza bultzatzeko, 2022ko urriaren 14ko Aginduaren arabera
	1.1.5. ekintza	Auzoak birdentsifikatzea, eta erabilera anizkoitzaren aldeko apustua
	1.1.6. ekintza	Etxebizitza babestua erostea, alokairu babestura bideratzeko, eta etxebizitza babestuak lehentasunez erosteko eta atzera eskuratzeko eskubidea gauzatzea
	1.1.7. ekintza	Etorkizunean babes publikoko etxebizitzaren eraikuntza bermatzeko lurzorua bereganatzea eta prestatzea, eremu degradatueta lehentasunezkoa izanik
	1.1.8. ekintza	Baliabideak gizarte-erakundeei lagatzea, kalteberatasun bereziko egoeran dauden pertsonen esleitzeko
1.2 estrategia Etxebizitza hutsak mobilizatzeko edo alokairu-merkatuan bitartekotza egiteko jarduketak eta programak	1.2.1. ekintza	Hutsik dauden etxebizitzak eta etxebizitza turistikoaren erakarpenera areagotzea, alokairu babestura bideratzeko udal-aloairuko politiken bidez (Alokabide), hura berregituratuz eta indartuz, programa horretan erregistratutako etxebizitzaren erantzun-denbora murrizteko
	1.2.2. ekintza	Eusko Jaurlaritzarekiko lankidetzak bultzatzea, Bizigune eta ASAP programetarako etxebizitza gehiago erakartzeko
	1.2.3. ekintza	Hutsik dauden etxebizitzak birgaitzeko dirulaguntzen berri ematea, etxebizitza horiek alokairu-merkatua bideratzeko: Eusko Jaurlaritzak eta Alokabidek arlo horretan dituzten dirulaguntzen berri ematea, aholkularitza espezializatua.
	1.2.4. ekintza	Hutsik dauden etxebizitzaren mobilizazioa sustatzeko zerga-neurriak: OHZ, jenderik gabeko etxebizitzaren gaineko kanona ezartzeko azterlana eta nahitaezko alokairua aplikatzeko moduaren azterketa, 3/2015 Legeak jasotzen duen bezala, Jenderik gabeko Etxebizitzaren Erregistroan inskribatuta dauden eta, bertan inskribatu zirenetik urtebete igaro ondoren, hutsik dauden etxebizitzei dagokienez.
	1.2.5. ekintza	Egungo etxebizitza turistikoaren lizentziak iraungitzeko aldi iragankor bat ezartzeko asmoz, udal-araudian egin beharreko aldaketak egitearen ondorio juridikoak eta ekonomikoak aztertzea, erabilera turistikoaren etxebizitzarik egon ez dadin.

Planaren estrategia orokorra

PLANAREN ESTRATEGIA

2. ARDATZA. ERAIKITAKO PARKEAREN GAINEKO JARDUKETAK ETA HIRI-BERRONERATZEA

2.1 estrategia

Eraikinen eta etxebizitzaren irisgarritasuna hobetzen laguntzea, jarduketak auzorik eta kolektiborik ahulenetan ardaztuz

2.1.1. ekintza

Eusko Jaurlaritzarekin eta elkargo profesionalekin lankidetzan aritzea, dauden dirulaguntzen berri emateko eta birgaitzeko dirulaguntzen eskabideak izapidetzeko

2.1.2. ekintza

Irisgarritasuna hobetzeko laguntza eta aholkularitza

2.1.3. ekintza

Birgaitzea bultzatzeko zerga-neurriak

2.2 estrategia

Etxebizitza-parkearen energia-eraginkortasunaren hobekuntza bultzatzea

2.2.1. ekintza

Eusko Jaurlaritzarekin eta elkargo profesionalekin lankidetzan aritzea, energia-eraginkortasuna hobetzeko dauden dirulaguntzen berri emateko

2.2.2. ekintza

Efizientzia energetikoko irizpideen arabera birgaitutako etxebizitzaren energia-monitorizazioa bultzatzea

2.3 estrategia

Lehendik dauden etxebizitzak zatitzea eta lokalak etxebizitza bihurtzea sustatzea

2.3.1. ekintza

Lehendik dauden etxebizitzaren zatiketa bultzatzen jarraitzea, eta araudia aldatzeko aukera eta bideragarritasuna aztertzea, zatitutako edo bereiztutako etxebizitzaren bat etxebizitza babestu gisa kalifikatzeko

2.3.2. ekintza

Lokalak etxebizitza bihurtzea bultzatzen jarraitzea, eta lokalak etxebizitza bihurtzeko Ordenantzaren aldaketa sustatzeko aukera eta bideragarritasuna aztertzea, haren baldintzetako batzuk malgutzat eta etxabeak etxebizitza babestu gisa kalifikatuz

2.3.3. ekintza

Udal-ordenantzaren eta Eusko Jaurlaritzaren Bizigarritasunari buruzko ekainaren 28ko 80/2022 Dekretuaren arteko koordinazioa

2.4 estrategia

Hiria berroneratzeko jarduketa integralak sustatzea

2.4.1. ekintza

Eusko Jaurlaritzatik eta Europatik auzoetara bideratutako dirulaguntzen berri ematea eta dirulaguntza horiek kudeatzea

2.5 estrategia

Etxebizitzaren zerga-arloko azterketa

2.5.1. ekintza

Etengabeko lanketa EUDELein eta Gipuzkoako Foru Aldundiarekin etxebizitzari lotutako zerga-esparrua aztertzeke, progresibitatea hobetzera bideratuta

Planaren estrategia orokorra

PLANAREN ESTRATEGIA

3. ARDATZA. ALOKAIURAKO PRESTAZIOEN ETA DIRULAGUNTZEN SISTEMA

3.1 estrategia

Gazteen emantzipaziorako dirulaguntzak

3.1.1. ekintza

Eusko Jaurlaritzarekin lankidetzan aritzea emantzipaziorako dirulaguntzen berri emateko: Gaztelagun eta Emantzipa

3.2 estrategia

Kolektibo zaurgarrienei arreta berezia ematea

3.2.1. ekintza

Eusko Jaurlaritzarekin lankidetzan aritzea, Eusko Jaurlaritzaren dirulaguntzen jarraipena eta koordinazioa egiteko

3.2.2. ekintza

Gizarte Larrialdietarako Laguntzak (GLL)

3.2.3. ekintza

Gizarte Zerbitzuekin eta Hirugarren Gizarte Sektoreko erakundeekin lankidetzan aritzea, bazterkeria edo mendekotasun handia duten kolektiboei arreta emateko

3.2.4. ekintza

Desgaitasunen bat duten donostiarrei eta etxebizitzarako eskubideari dagokionez duten egoerari buruzko azterketa/analisi xehea egitea

3.3 estrategia

Tentsio-eremu izendatzearekin eta maiatzaren 24ko 12/2023 Legearekin lotutako ekintzak

3.3.1. ekintza

Tentsio-eremu izendatzearekin eta maiatzaren 24ko 12/2023 Legearekin lotutako ekintzak

Planaren estrategia orokorra

PLANAREN ESTRATEGIA

4. ARDATZA. GOBERNANTZA-SISTEMAK ETA ERAKUNDEEN ARTEKO KOORDINAZIOA


4.1 estrategia Etxebizitzari buruzko aholkularitza zerbitzu integrala	4.1.1. ekintza	Birgaitzeari buruzko laguntza tekniko integrala, Eusko Jaurlaritzarekin, Dirubilketarako Erakunde Autonomoekin eta elkargo profesionalekin lankidetzan, eta aholkularitza-zerbitzua eskaintzea alokairu merkatuko bitartekaritza-programei dagokienez
	4.1.2. ekintza	Sentsibilizazio-, prestakuntza- eta aholkularitza-kanpainak egitea
4.2 estrategia Etxebizitza Planaren jarraipena eta ebaluazioa	4.2.1. ekintza	Eusko Jaurlaritzarekin eta Alokabide eta Visesa sozietate publikoekin koordinatzea
	4.2.2. ekintza	Aginte-aula eta jarraipen-adierazleak
	4.2.3. ekintza	Etxebizitza Planaren urteko ebaluazioa egitea, udal-taldeek parte hartzen duten eta horretarako sortutako lantalde baten bidez
	4.2.4. ekintza	Planaren betetze-mailari buruz berri ematea



3

Estrategiaren garapena

1. ARDATZA

**ALOKAIRU ESKURAGARRIA SUSTATZEA**

Estrategiaren garapena

1. ARDATZ ESTRATEGIKOA: Alokairu eskuragarria sustatzea

1.1 estrategia. Babes publikoko bizitegi-erabilerako etxebizitzaren kopurua handitzea, batez ere alokairu-erregimenean

1.1.1. ekintza. Babes publikoko etxebizitzak sustatzea

Erakunde arduradunak

- Udala
- Eusko Jaurlaritza

Helburua

1.360 etxebizitza babestu

Abiapuntuko egoera

Donostiak etxebizitza babestuen garapen garrantzitsua izan du. Alokairu babestuko etxebizitzaren eta zuzkidura-bizitokiaren egungo parkea 3.000 etxebizitzatik gorakoa da, hau da, hiriko alokairuko parkearen laurdena.

Hala ere, oraindik ere pertsona askok eskatzen dute etxebizitza babestua Donostian. Zehazki, Etxebideren datuen arabera, 6.143 espediente daude alokairu babestuko etxebizitza bat eskatzeko, eta 2.472 eresketa-erregimenekoak dira.

2023-2027 Gobernu Planak gaur egun berrikusten ari den HAPO berria onartzeko eta aurreikusitako etxebizitza berriak sortzeko planak garatzeko konpromisoa hartu du, 2033rako 6.000 etxebizitza berri sortzeko helburua betetzeko.

Gobernu Planak, alde batetik, 2027rako garatu beharreko jarduketak zehazten ditu, eta, bestetik, 2033rako etxebizitza berriak.

Ekintzaren deskribapena

Alokairuko babes publikoko etxebizitzak sustatzea aurreikusten da, babes publikoko etxebizitzetarako gordetako ehuneko legeko gutxienekoaren gainetik kokatuz, finantza-iraunkortasuneko irizpideekin.

Ekintza horren esparruan, eraikigarritasun berriaren sabaia ehuneko bat etxebizitza babestu gisa kalifikatzeko aukera eta bideragarritasuna aztertuko da 600 m² baino gehiagoko sabaia eraiki daitekeen lurzatietan, eraikuntza berriko edo birgaitze handiko bizitegi-jarduketa handietan, jabetza horizontaleko erregimenean banatu gabeko bizitegi-eraikinetan edo, kasu horietan, eraikigarritasun haztatua handitzen den kasuetan.

2025-2027 aldian eraiki beharreko etxebizitzaren aurreikuspena:

- 1.360 etxebizitza babestu (576 BOE eta 442 tasatuak) eta 342 zuzkidura-bizitoki eraikitzea aurreikusten da, taulan adierazitako eremuetan.

Estrategiaren garapena

1. ARDATZ ESTRATEGIKOA: Alokairu eskuragarria sustatzea

1.1 estrategia. Babes publikoko bizitegi-erabilerako etxebizitzaren kopurua handitzea, batez ere alokairu-erregimenean

1.1.1. ekintza. Babes publikoko etxebizitzak sustatzea

Ekintzaren deskribapena

Hiriak datozen urteetarako helburu dituen lurzoruen gutxi gorabeherako erlazioa aurreratzen da, Gobernu Planean horrela jasota baitago. Administrazio bakoitzak eremu bakoitzean izan dezakeen parte-hartzea adierazten da, edo batera gauzatzeko aukera planteatzen da.

Administrazio-hitzarmen baten bidez, Udalak eta Eusko Jaurlaritzak etxebizitza babestua eta zuzkidura-bizitokiak eraikitzeke utziko diren lurzoruak eta eskubideak adostuko dituzte, baita lagapenaren baldintzak eta elkarren arteko lankidetzak-konpromisoak ere.

EREMUA	HITZARMENERAKO KUDEAKETA- PROPOSAMENA	BOE	Tasatuak	Etxebizitza babestua, guztira	Zuzkidura bizitoki	Guztira (BOE + zuzk.)	Libreak	ETXEBIZITZA GUZTIRA (librea+babestua+zuzki dura)
LO.01 LORATEGI HIRIA. LOIOLA	Eusko Jaurlaritza	73	41	114	0	114	197	311
AM.05 LOIOLAKO ERRIBERAK (g.000.7)	Eusko Jaurlaritza	0	0	0	80	80	0	80
AM.09 MORLANS	Eusko Jaurlaritza	0	0	0	160	160	0	160
LO.05 TXOMIN ENEA II	Eusko Jaurlaritza	182	91	273	42	315	86	401
IB.22 INFERNUA	Udala	135	135	270	35	305	270	575
IB.12 ILLARRA	Udala	66	65	131	25	156	131	287
IB.14.1 ILLARRA BERRI (DV)	Udala	53	52	105	0	105	157	262
AÑ.03.1 AÑORGAO GELTOKIA	Udala	50	50	100	0	100	150	250
MA.07.1 APOSTOLUTZA	Eusko Jaurlaritza	8	8	16	0	16	26	42
AU.01.2 RODIL	Eusko Jaurlaritza	9	0	9	0	9	38	47
2025-2027 guztira		576	442	1.018	342	1.360	1.055	2.415

* Etxebizitzaren eta zuzkidura-bizitokiaren kopuru zehatza plangintza xehekatuan zehaztuko da.

Estrategiaren garapena

1. ARDATZ ESTRATEGIKOA: Alokairu eskuragarria sustatzea

1.1 estrategia. Babes publikoko bizitegi-erabilerako etxebizitzaren kopurua handitzea, batez ere alokairu-erregimenean

1.1.1. ekintza. Babes publikoko etxebizitzak sustatzea

Erakunde arduradunak

- Udala
- Eusko Jaurlaritza
- Defentsa Ministerioa

Loiolako Kuarteleterako etxebizitza babestuen ehunekoa handitu egingo da, bideragarritasun ekonomikoak ahalbidetzen duen gehienekora.

Abiapuntuko egoera

2023-2027 Gobernu Planak garapen berrietan aurrera egiteko konpromisoa ere jasotzen du, bizitegi-garapen berriak sortzea ahalbidetuko dutenak, hala nola Loiolako kuartelak, Easoko bide-zatia edo Urumea ardatzaren hiri-berreskurapena eta -balioa handitzea.

Eragiketa horiek hiri-berroneratzea eta hiriarentzako espazioak berreskuratzea dakarte, bizitegi-eraikuntza nabarmen handituz, eta, zehazki, etxebizitza babestuen bolumen handia eraikiz, hainbat modalitatetan, eta, horri esker, askotariko biztanleen beharrei erantzun ahal izango zaie.

Ekintzaren deskribapena

Epe ertainera eraiki beharreko etxebizitzaren aurreikuspena (2033):

- 4.344 etxebizitza babestu (3.176 BOE eta 1.168 tasatuak) eta 180 zuzkidura-bizitoki eraikitzea aurreikusten da, taulan adierazitako eremuetan.

EREMUA	HITZARMENERAKO KUDEAKETA- PROPOSAMENA	BOE	Tasatuak	Etxebizitza babea, guztira	Zuzkidura bizitokia	Guztira (BOE + zuzk.)	Libreak	ETXEBIZITZA GUZTIRA (librea+babea+zuzkidura)
AL.05 JOLASTOKIETA III	Eusko Jaurlaritza	80	89	169	0	169	287	456
AL.20 AUDITZ AKULAR	Udala/EJ partekatua	1.726	628	2.354	50	2.404	708	3.112
EASO HONDARTZA	Eusko Jaurlaritza	500	0	500	30	530	0	530
LO.04 KUARTELAK	Udala/EJ partekatua	340	340	680	50	730	1.020	1.750
MA.01 ANTZITA	Eusko Jaurlaritza	294	93	387	0	387	513	900
MA.05.1 TRINQUETE	Udala	18	18	36	50	36	54	90
MA.06 SARRUETA	Udala/EJ partekatua	218	0	218	0	268	326	594
2027-2033 guztira		3.176	1.168	4.344	180	4.524	2.908	7.432
2025-2033 guztira		3.752	1.610	5.362	522	5.884	3.963	9.847

Sustatzaiela	BOE	Tasatuak	Zuzkidura bizitokia	GUZTIRA
Udala	322	320	60	702
Eusko Jaurlaritza	1.146	322	312	1.780
Udala/EJ partekatua	2.284	968	150	3.402
	3.752	1.610	522	5.884

Estrategiaren garapena

1. ARDATZ ESTRATEGIKOA: Alokairu eskuragarria sustatzea

1.1 estrategia. Babes publikoko bizitegi-erabilerako etxebizitzaren kopurua handitzea, batez ere alokairu-erregimenean

1.1.2. ekintza. Zuzkidura-bizitokiaren sustapena bultzatzea

Erakunde arduradunak

- Udalak
- Eusko Jaurlaritzak

Helburua

342 zuzkidura-bizitoki

Abiapuntuko egoera

Zuzkidura-bizitokiak formula baliotsua dira baliabide gutxiko biztanleriaren segmentu batentzat prezio merkeko bizitegi-irtenbideak merkaturatzeko.

Donostiak 704 zuzkidura-bizitoki ditu gaur egun, eta horietatik 579 Etxegintzak kudeatzen ditu:

- 283 bizitoki, 18 eta 35 urte bitarteko gazteentzat
- 296 bizitoki, adinekoentzat

Gainera, Eusko Jaurlaritzak 125 bizitoki kudeatzen ditu

Auzoa	Etxegintza		Eusko Jaurlaritzak
	Gazteentzako bizitokiak	Adinekoentzako bizitokiak	
Aiete	56	--	--
Antiguo	50	63	--
Ategorrieta-Ulía	--	71	--
Ibaeta	48	63	--
Intxaurrondo	129	99	125
Guztira	283	296	125

Ekintzaren deskribapena

Donostiako gazteei zuzendutako zuzkidura-bizitokiak eraikitzen jarraitzea aurreikusten da, emantzipazio-premiei erantzun ahal izateko. Gainera, Udalak desgaitasunen bat dutenak, batez ere gazteak, zuzkidura-bizitokietan sar daitezen bultzatuko du. Bizitokiak diseinatzeko lan egingo da, desgaitasunen bat duten eta/edo mendetasun-egoeran dauden pertsonen beharrei erantzun egokia emateko.

Era berean, adinekoentzako ostatuak ere eraikiko dira, egiaztatu baita kolektibo horrentzako bizileku-irtenbide ezin hobe dela.

EREMUA	Zuzkidura-bizitokiak
2025-2027	342
LOIOLAKO ERIBERAK	120
MORLAN	160
TXOMIN ENEA II	42
INFERNUA	35
ILLARRA	25
2028-2033	180
KUARTELAK	50
EASO BIDE-ZATIA	30
SARRUETA	50
AUDITZ	50
GUZTIRA	522

Estrategiaren garapena

1. ARDATZ ESTRATEGIKOA: Alokairu eskuragarria sustatzea

1.1 estrategia. Babes publikoko bizitegi-erabilerako etxebizitzaren kopurua handitzea, batez ere alokairu-erregimenean

1.1.3. ekintza. Gero eta eskari dibertsifikatuagoari erantzuteko formula berriak bultzatzea

Erakunde arduradunak

- Udala
- Eusko Jaurlaritzza
- Erakunde pribatuak

Helburua

200 etxebizitza

Abiapuntuko egoera

Lankidetzak publiko-pribatua babestutako etxebizitzaren eskaintza handitzen lagun dezakeen formula bat da.

Erabilera-lagapenean dauden kooperatibak formula berritzailea dira maila sozioekonomiko ertaina duten pertsonentzat (urtean 39.000 € gordinetik beherako diru-sarrerak) eta merkatu librean sartzeko zailtasunak dituztenentzat.

Donostiak sustapen berri bat abiatu du Txomin-Enea auzoan, formula horrekin. Eusko Jaurlaritzak bere jabetzako lursail bat laga du, lurzorua erabiltzeko eskubidearen lagapenarekin, 75 urterako. Hau da ezaugarri horiek dituen lehen proiektua Euskadi osoan.

Kasu honetan, Bizkide S.Coop kooperatiba **104 familia bazkidek** osatzen dute. Formula horren bidez, etxebizitzaren balioaren % 20-25 inguru ordainduko da, eta batez beste 600 €-ko hileko kanona ordainduko da. Beraz, alokairuaren eta jabetzaren arteko formula da.

Ekintzaren deskribapena

Donostiako Udalak uste du formula ona dela alokairuko parke publikora edo merkatu librerara iritsi ezin diren errenta ertainak dituzten pertsonentzako etxebizitza eskuragarriak merkatuan jartzeko.

Hori dela eta, hasitako sustapena amaitzea eta datozen urteetan horrelako sustapen berri bat abian jartzea aurreikusten da.

EREMUA	Azalera-lagapeneko etxebizitzak
2025-2027	
Txomin Enea	104
Kokapena baieztatu gabe	96

Estrategiaren garapena

1. ARDATZ ESTRATEGIKOA: Alokairu eskuragarria sustatzea

1.1 estrategia. Babes publikoko bizitegi-erabilerako etxebizitzaren kopurua handitzea, batez ere alokairu-erregimenean

1.1.4. ekintza. Sektore pribatuarekin lankidetzan aritzea alokairuko etxebizitza eskuragarrien eraikuntza bultzatzeko, 2022ko urriaren 14ko Aginduaren arabera

Erakunde arduradunak

- Udala
- Eusko Jaurlaritza
- Sustatzaile pribatuak

Helburua

300 etxebizitza

Abiapuntuko egoera

Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2022ko urriaren 14ko Aginduak, arrazoizko alokairuari buruzkoak, arrazoizko alokairuaren espezialitate berri bat arautzen du erregimen orokorreko babes sozialeko etxebizitzaren eta araubide autonomikoko etxebizitza tasatuen errentamendu-araubidearen barruan.

Programa berriaren bidez, titulartasun pribatuko lurzorua mobilizatu nahi dira, diru-sarrera ertainak dituzten pertsonen edo bizikidetzak-unitateei erreserbatutako alokairu eskuragarria bidera daitezen. Horrela, pertsona edo bizikidetzak-unitate horiek errentamendu-erregimeneko etxebizitza babestu bat eskuratu ahal izango dute, merkatu librekoak baino prezio txikiagoan.

Eusko Jaurlaritzak 779 etxebizitzatarako dirulaguntzak eman ditu modalitate honetan:

- 522 Araban
- 257 Bizkaian

Ekintzaren deskribapena

Donostiako Udalak alokairuko etxebizitza eskuragarrien eraikuntza bultzatzea aurreikusten du formula berri horren arabera.

Sustatzaile pribatuek hitzarmenak sina ditzakete Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailarekin, diru-sarrera ertainak (21.000 € eta 39.000 € artean) dituzten kolektiboentzat alokairu eskuragarriko etxebizitzak eraikitzeke. Donostian 1.400 bat familia-unitate daude, Etxebizitzaren alokairuko etxebizitzaren eskatzaile gisa erregistratuta, eta urtean 21.000 € eta 39.000 € arteko diru-sarrerak dituztenak.

Etxebizitzak gutxienez 20 edo 50 urtez eskaintzen dira alokairuan. Enpresa sustatzaileek 18.000 €-ko dirulaguntza jasoko dute etxebizitza bakoitzeko, alokairurako erabiltzen bada 20 urterako, eta 45.000 €-ko dirulaguntza alokairu eskuragarria 50 urtera luzatzen bada.

Donostiako Udalaren helburua Eusko Jaurlaritzarekin eta sustatzaile pribatuekin lankidetzan aritzea da, udalerrian etxebizitza-modalitate hori bultzatzeko.

EREMUA	Alokairu eskuragarriko etxebizitzak
2025-2033	
Kuartelak	300

Estrategiaren garapena

1. ARDATZ ESTRATEGIKOA: Alokairu eskuragarria sustatzea**1.1 estrategia. Babes publikoko bizitegi-erabilerako etxebizitzaren kopurua handitzea, batez ere alokairu-erregimenean****1.1.5. ekintza. Auzoak birdentsifikatzea, eta erabilera anizkoitzaren aldeko apustua****Erakunde arduradunak**

- **Udala**
- **Eusko Jaurlaritza**
- **Sustatzaile pribatuak**

Abiapuntuko egoera

Hirigintzaren arloan, bizitegiak birdentsifikatzeak lehendik dauden hiriguneetako biztanleria-dentsitatea handitzea dakar, hiria eremu berrietara hedatu beharrean. Ikuspegi horrek hainbat onura esanguratsu ditu:

- Lurzoruaren erabilera eraginkorra
- Garraio publikoa hobetzea
- Ingurumen-jasangarritasuna
- Zerbitzu eta ekipamenduetarako sarbidea

Bestalde, erabilera anizkoitzak, besteak beste, bizitegi-, merkataritza-, lan-, jolas- eta kultura-erabileren integrazioa sustatzen du, eta HAPO berriaren filosofiari eta lurralde-estrategiari erantzuten dio.

Erabilera anizkoitzak hiri trinkoagoa, inklusiboagoa eta eraginkorragoa sortzen laguntzen du.

Ekintzaren deskribapena

Planak erabilera anizkoitzaren aldeko eredu batera egokitzea aurreikusten du, indarrean dagoen plangintzan aurreikusitako eraikigarritasunari dagokionez.

Gainera, garraio publikorako irisgarritasun ona duten bizitegi-dentsitate txikiko auzoetan birdentsifikazioa sustatzea aurreikusten da, birdentsifikazio horren ondorioz sortutako bizitegi-sabai berriaren % 50 gutxienez kalifikatuz babes publikoko etxebizitzak eraikitzeko, batez ere alokairu-erregimenean, finantza-iraunkortasuneko irizpideen arabera.

Estrategiaren garapena

1. ARDATZ ESTRATEGIKOA: Alokairu eskuragarria sustatzea

1.1 estrategia. Babes publikoko bizitegi-erabilerako etxebizitzaren kopurua handitzea, batez ere alokairu-erregimenean

1.1.6. ekintza. Etxebizitza babestua erostea, alokairu babestura bideratzeko, eta etxebizitza babestuak lehentasunez erosteko eta atzera eskuratzeko eskubidea gauzatzea

Erakunde arduradunak

- Udala
- Eusko Jaurlaritza

Helburua

50 etxebizitza

Abiapuntuko egoera

Bigarren eskuko etxebizitza babestua erostea etxebizitza babestua udal-parke publikoan sartzeko modu azkarra izan daiteke.

Bestalde, udala etxebizitza babestuak lehentasunez erosteko eta atzera eskuratzeko eskubidea erabiltzen ari da, legezko ez-betetzeak egon daitezkeela uste den kasuetan.

Ekintzaren deskribapena

Planak mekanismo horiek erabiltzea aurreikusten du alokairu-erregimenera bideratutako etxebizitza babestuen kopurua handitzeko:

- Etxebizitza babestua erostea alokairuko udal-parke publikora bideratzeko
- Etxebizitza babestuak lehentasunez erosteko eta atzera eskuratzeko eskubidea erabiltzea

Bereziki, mugikortasun urriko pertsonentzat egokitutako etxebizitzak atzemateko neurriak bultzatuko dira, desklasifikatzea saihesteko.

Estrategiaren garapena

1. ARDATZ ESTRATEGIKOA: Alokairu eskuragarria sustatzea

1.1 estrategia. Babes publikoko bizitegi-erabilerako etxebizitzaren kopurua handitzea, batez ere alokairu-erregimenean

1.1.7. ekintza. Etorkizunean babes publikoko etxebizitzaren eraikuntza bermatzeko lurzorua bereganatzea eta prestatzea

Erakunde arduradunak

- Udala
- Eusko Jaurlaritza

Helburua

4.344 etxebizitza

Abiapuntuko egoera

Etorkizunean babes publikoko etxebizitza gehiago eraiki ahal izateko, beharrezkoa da lurzoru berriak atzemateko eta erabilgarri daudenak prestatzeko lanean jarraitzea.

HAPOn berrikuspenean, hiria birgaitzeko eta berroneratzeko jarduketak lehenestea eta bultzatzea jasotzen da lurralde-estrategiaren oinarri gisa, urbanizazio berriko jarduketan aurrean.

Lurzorua erosteko jarduketa nagusia Loiolako Kuartelak dira, eta Udalaren finantza-ahalmena xurgatzen du.

Ekintzaren deskribapena

Lurzorua prestatzea:

- 2028-2033 aldian etxebizitzak eraikitzeko lurzoru erabilgarria prestatzeko helburua honako hau da:

EREMUA	HITZARMENERAKO KUDEAKETA- PROPOSAMENA	BOE	Tasatuak	Etxebizitza babestua, guztira	Zuzkidura bizitoki	Guztira (BOE + zuzk.)	Libreak	ETXEBIZITZA GUZTIRA (librea+babestua+zuz kidura)
AL.05 JOLASTOKIETA III	Eusko Jaurlaritza	80	89	169	0	169	287	456
AL.20 AUDITZ AKULAR	Udala/EJ partekatua	1.726	628	2.354	50	2.404	708	3.112
EASO HONDARTZA	Eusko Jaurlaritza	500	0	500	30	530	0	530
LO.04 KUARTELAK	Udala/EJ partekatua	340	340	680	50	730	1.020	1.750
MA.01 ANTZITA	Eusko Jaurlaritza	294	93	387	0	387	513	900
MA.05.1 TRINQUETE	Udala	18	18	36	50	36	54	90
MA.06 SARRUETA	Udala/EJ partekatua	218	0	218	0	268	326	594
2028-2033 guztira		3.176	1.168	4.344	180	4.524	2.908	7.432

Lurzorua erostea:

Lehentasunez, eremu degradatueta lurzorua erostea aurreikusten da, babes publikoko etxebizitzak birgaitzeko eta eraikitzeko eragiketak ahalbidetzeko, eremu berriak kolonizatu eta artifizializatu gabe.

Estrategiaren garapena

1. ARDATZ ESTRATEGIKOA: Alokairu eskuragarria sustatzea

1.1 estrategia. Babes publikoko bizitegi-erabilerako etxebizitzaren kopurua handitzea, batez ere alokairu-erregimenean

1.1.8. ekintza. Baliabideak gizarte-erakundeei lagatzea, kalteberatasun bereziko egoeran dauden pertsonei esleitzeko

Erakunde arduradunak

- Udala
- Hirugarren Gizarte Sektoreko erakundeak

Helburua

50 etxebizitza

Ekintzaren deskribapena

- Udalak gizarte-erakundeei baliabideak lagatzea aurreikusten du, kalteberatasun bereziko egoeran dauden pertsonei esleitzeko, abian dauden politikekin jarraituz.

Abiapuntuko egoera

Donostiako Udalaren etxebizitza-politikek egoera ahulenean dauden kolektiboetan jartzen dute arreta. Babes publikoko etxebizitza bat eskuratzeko eskakizunek eta baremazio-sistemek diskriminazio positiboa eragiten dute egoera ahulenetan dauden familia-unitateekiko.

Gainera, Etxegintzak egoitza-baliabideak lagatzen dizkie gizarte-erakundeei eta Udaleko Gizarte Zerbitzuei, gizarte-larrialdi bereziko egoerei erantzuteko.

Gaur egun, gizarte-erakundeei lagatako 88 etxebizitza daude guztira.

Estrategiaren garapena

1. ARDATZ ESTRATEGIKOA: Alokairu eskuragarria sustatzea

1.2 estrategia. Etxebizitza hutsak mobilizatzeko edo alokairu-merkatuan bitartekotza egiteko jarduketak eta programak

1.2.1. ekintza. Hutsik dauden etxebizitzaren eta etxebizitza turistikoaren erakarpenera areagotzea, alokairu babestura bideratzeko udal-aloairuko poltsaren bidez (Alokabide), hura berregituratuz eta indartuz, programa horretan erregistratutako etxebizitzaren erantzun-denbora murrizteko

Erakunde arduradunak

- **Udala**
- **Erakunde pribatuak**

Helburua

300 etxebizitza

Abiapuntuko egoera

Alokabide hutsik dauden etxebizitza pribatuak alokairura bideratzea sustatzen duen udal-programa da, errentarien eta alokairuko merkatuan etxebizitza jarri nahi duten pertsonen arteko bitartekaritzaren bidez. Programa honi esker, bi aldeek abantaila garrantzitsuak lortzen dituzte.

Maizterrentzako abantailak:

- Doako justizia-aholkularitza zerbitzua
- Etxebizitza egokia bilatzea, eskuragarri dauden artean
- Merkatukoa baino alokairu-errenta txikiagoa

Jabearentzako abantailak:

- Etxegintzak ordaintzen duen etxeko arrisku anitzeko aseguria
- Kexak eta erreklamazioak izapidetzea (alderdien arteko bitartekaritza)

Gaur egun, Donostiako Udalak 235 etxebizitza ditu guztira, programa honi atxikitako alokairu-kontratuarekin. Etxebizitza horien batez besteko errenta hilean 633 €-koa da.

Ekintzaren deskribapena

Donostian alokairuko etxebizitzaren eskaria oso handia da. Hiriak alokairu-erregimeneko etxebizitza babestuen eta zuzkidura-bizitokien parke garrantzitsua du (3.000 unitate baino gehiago), baina eskaintza hori handitu behar da gero eta eskari handiagoari aurre egiteko.

Udalaren ustez, Alokabide programa formula interesgarria da iraupen luzeak alokairurako etxebizitza gehiago eskuratzeko.

Hori dela eta, datoen urteetan etxebizitzak erakartzeko lanak areagotzea aurreikusten da, bai hutsik daudenak, bai gaur egun turismo-etxebizitza gisa erabiltzen direnak. Mugikortasun urriko pertsonentzat egokitutako etxebizitzak atzematea ere aurreikusten da, udal-aloairuko poltsan sartzeko. Era berean, udal alokairu-poltsaren irisgarritasun-baldintzei buruzko informazio-mekanismoak sustatuko dira.

Programa horri eta antzeko beste batzuei buruzko informazio-kanpaina bat egitea aurreikusten da, hala nola Eusko Jaurlaritzaren Bizigune eta ASAP programei buruzkoa, etxebizitzaren jabeen horrelako programek eskaini diezazkieketen abantailak erakusteko, batez ere segurtasunari dagokionez.

Helburua ahalik eta etxebizitza gehien lortzea da, jabeen bermeak eta maizterrentzako errenta eskuragarriagoak eskainiz.

Alokairuko etxebizitzaren udal-poltsa 300 unitateraino handitzea aurreikusten da.

Estrategiaren garapena

1. ARDATZ ESTRATEGIKOA: Alokairu eskuragarria sustatzea

1.2 estrategia. Etxebizitza hutsak mobilizatzeko edo alokairu-merkatuan bitartekotza egiteko jarduketak eta programak

1.2.2. ekintza. Eusko Jaurlaritzarekiko lankidetza bultzatzea, Bizigune eta ASAP programetarako etxebizitza gehiago erakartzeko

Erakunde arduradunak

- Udala
- Eusko Jaurlaritza
- Erakunde pribatuak

Helburua

130 etxebizitza

Abiapuntuko egoera

Eusko Jaurlaritzak Bizigune programa du. Programa horren bidez, hutsik dauden 7.000 etxebizitza baino gehiago lortu ditu Euskadi osoan, iraupen luzeko ohiko alokairura bideratzeko. Etxebizitza horietatik 94 Donostian daude.

Etxebizitza horien jabeek gehienez ere 675 € jaso ditzakete hilean. 94 etxebizitza horietako maizterrek ordaintzen duten batez besteko errenta 265 €-koa da hilean, Eusko Jaurlaritzak aldea diruz laguntzen baitu familia-unitateek diru-sarreraren % 30 baino gehiago ordaindu ez dezaten. Maizterren urteko gehieneko diru-sarrera gordinak 25.000 €-koak dira.

Bestalde, alokairu-merkatuko bitartekaritza-programa (ASAP) Donostiako Udalaren Alokabide programaren antzekoa da. Gipuzkoako hiriburuan programa horri atxikitako 5 etxebizitza daude, eta hileko batez besteko errenta 645 €-koa da.

Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitzaren Erabilerari buruzko Estatistikaren arabera, Donostian 1.481 etxebizitza huts kudea daitezke.

Ekintzaren deskribapena

Programa horien helburua, Udalaren Alokabide programarekin batera, partikularrenak diren eta alokairuko merkatura zuzendutako etxebizitzaren eskaintza handitzea da, arrazoizko prezioetan.

Helburu horrekin, segurtasun-bermeak eskaini nahi zaizkie jabeek, etxebizitzak laga ditzaten merkatuan baino errenta txikiagoak lortzearen truke.

Donostiako Udalaren ustez, formula ezin hobea da alokairuko etxebizitzaren parkea handitzeko eta herritarren beharrei erantzuteko.

Bereziki, Bizigune programak erantzuna ematen die hilean 265 € inguruko alokairu-errenta ordain dezaketen familia-unitate kalteberen kolektiboek.

Udalak programa hau bultzatu nahi du hirian, programa honetan sartzeko etxebizitza egokiak bereganatzen saiatuz. Mugikortasun urriko pertsonentzat egokitutako etxebizitzak sartzeko ere bultzatuko da. Horretarako, jabeek zuzendutako informazio-kanpaina bat egingo da, programan parte hartzen duten beste jabe batzuen jardunbide egokiei balioa emanez.

Horrela, Bizigune Programan sartutako etxebizitzaren kopurua 130 unitateraino handitzea aurreikusten da.

Estrategiaren garapena

1. ARDATZ ESTRATEGIKOA: Alokairu eskuragarria sustatzea

1.2 estrategia. Etxebizitza hutsak mobilizatzeko edo alokairu-merkatuan bitartekotza egiteko jarduketak eta programak

1.2.3. ekintza. Hutsik dauden etxebizitzak birgaitzeko dirulaguntzen berri ematea, etxebizitza horiek alokairu-merkatura bideratzeko

Erakunde arduradunak

- Udala
- Eusko Jaurlaritza
- Erakunde pribatuak

Helburua

Informazio-kanpaina bat

Abiapuntuko egoera

Donostiak oso zaharkituta dagoen etxebizitza-parkea du, birgaitze-premia handikoa. Alokairu-merkatuan jar daitezkeen etxebizitza askok birgaitze-lan handia behar dute alokatu aurretik.

Eusko Jaurlaritzak eta Alokabidek birgaitzeko laguntza-programak dituzte etxebizitza hutsen jabeentzat, baldin eta etxebizitza horiek alokairu babestuko merkatuan sartzen badituzte 6 urtez.

Zehazki, Alokabidek interesik gabeko aurrerakina eskaintzen du etxebizitza alokairuan jartzeko beharrezkoak diren egokitze-lanetarako. Aurrerakin hori ordaindu beharreko errentatik deskontatzen da.

Horrela, erabiltzen ez diren eta hondatzen ari diren etxebizitzak merkatura itzultzea lortzen da, jabeak etxebizitzaren egoera hobetzea eta bermeekin alokatzea lortzen du, eta maizterrak etxebizitza duina errenta eskuragarrian.

Ekintzaren deskribapena

Eusko Jaurlaritzaren dirulaguntza hauek aukera aparta dira Donostiako parkea birgaitzeko, eta, aldi berean, etxebizitzaren eskaintza arrazoizko errentetan handitzea lortzen da, jabeek bermeak eta behar gehien duten pertsonen etxe duinak eskainiz.

Udalak aukera hori etxebizitza hutsen jabeen artean zabaltzea aurreikusten du. Etxegintzaren bulegoen bitartez aholkularitza espezializatua eta pertsonalizatua ematea aurreikusten da, alokairu babestuko merkaturako etxebizitza gehiago erakartzeko.

Ekintza hau, aurrekoekin ez ezik, 4.1.1 ekintzarekin ere lerrokatzen da. Bertan, etxebizitzaren arloan aholkularitza integrala ematea aurreikusten da, eta, zehazki, birgaitzearen arloan laguntza tekniko integrala ematea.

Estrategiaren garapena

1. ARDATZ ESTRATEGIKOA: Alokairu eskuragarria sustatzea

1.2 estrategia. Etxebizitza hutsak mobilizatzeko edo alokairu-merkatuan bitartekotza egiteko jarduketak eta programak

1.2.4. ekintza. Hutsik dauden etxebizitzaren mobilizazioa sustatzeko zerga-neurriak: OHZ, jenderik gabeko etxebizitzaren gaineko kanona ezartzeko azterlana eta nahitaezko alokairua aplikatzeko moduaren azterketa, 3/2015 Legeak jasotzen duen bezala, Jenderik gabeko Etxebizitzaren Erregistroan inskribatuta dauden eta, bertan inskribatu zirenetik urtebete igaro ondoren, hutsik dauden etxebizitzei dagokienez

Erakunde arduradunak

- Udala
- Eusko Jaurlaritza
- Erakunde pribatuak

Helburua

Ordenantza fiskala aldatzea
Azterketa egitea

Abiapuntuko egoera

Gaur egun, Udalak Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga (OHZ) erabiltzen du, errekaratu eta hobari bidez, hutsik dauden etxebizitzak alokairuan jartzea sustatzeko.

Gainera, udalak hainbat azterlan eta analisi, datu-gurutzaketa eta abar egin ditu Etxebizitzari buruzko ekainaren 18ko 3/2015 Legean aurreikusitako jenderik gabeko etxebizitzaren kanonaren ezarpena aztertzeke, hutsik dauden etxebizitzak mobilizatzeko asmoz. EUDELein harremanetan dago neurri horren ezarpena kalkulatzeko eta aztertzeke.

Era berean, 3/2015 Legean jasotako beste neurri batzuk ezartzea aztertzen ari dira, Jenderik Gabeko Etxebizitzaren Erregistroari dagokionez.


Ekintzaren deskribapena

Udalak bere esku dauden formulak erabiltzen jarraitzea aurreikusten du, bai errekaratu bidez, bai hobari bidez, etxebizitza hutsaren mobilizazioa sustatzeko helburuarekin.

Etxebizitzari buruzko ekainaren 18ko 3/2015 Legean eta jenderik gabeko etxebizitzari eta etxebizitzaren funtzio soziala betetzeko neurriari buruzko ekainaren 8ko 149/2021 Dekretuan jasotako neurriari dagokienez, honako hau aurreikusten da:

- Gaian sakontzen jarraitzea, jenderik gabeko etxebizitzak Euskal Autonomia Erkidegoko Jenderik gabeko Etxebizitzaren Erregistroan sartzeko azterlan bat eginez, helburu hauekin:
 - Jenderik gabeko etxebizitzaren kanona ezartzea, lege aurreikusitako baldintzetan.
 - Nahitaezko alokairua aplikatzeko modua aztertzea.

2. ARDATZA



**ERAIKITAKO PARKEAREN GAINEKO
JARDUKETAK ETA HIRI-BERRONERATZEA**



Estrategiaren garapena

2. ARDATZ ESTRATEGIKOA: Eraikitako parkearen gaineko jarduketak eta hiri-berroneratzea

2.1 estrategia. Eraikinen eta etxebizitzaren irisgarritasuna hobetzen laguntzea, jarduketak auzorik eta kolektibo ahulenetan ardatzuz

2.1.1. ekintza. Eusko Jaurlaritzarekin eta elkargo profesionalekin lankidetzan aritzea, dauden dirulaguntzen berri emateko eta birgaitzeko dirulaguntzen eskabideak izapidetzeko

Erakunde arduradunak

- **Udala, Eusko Jaurlaritza, erakunde pribatuak, elkargo profesionalak, hirugarren gizarte sektoreko erakundeak**

Helburua

1.300 kontsulta erantzutea

Abiapuntuko egoera

Donostiak oso zaharkituta dagoen etxebizitza-parkea du, eta irisgarritasun-arazo handiak ditu, batez ere Intxaurren.

Donostia osoan, etxebizitzaren % 20k ez du igogailurik. Proportzio hori % 31ra igotzen da Intxaurren kasuan.

Arazo hori areagotu egiten da egoera horrek irisgarritasun-zailtasun bereziak dituzten pertsonen eragiten dienean, hala nola adinekoei. Izan ere, kaltetutako pertsona asko 80 urtetik gorako emakumeak dira, eta bakarrik bizi dira beren etxebizitzetan.

Arazo hori etxebizitza-plan honetan lehentasuna emateko adinakoa dela uste da.

Ekintzaren deskribapena

Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2021eko Aginduak etxebizitza eta eraikinak birgaitzeko, eta irisgarritasunerako eta energia-eraginkortasunerako jarduketa babesgarrietarako finantza-neurriak arautzen ditu.

Agindu honek 3 laguntza-lerro ditu, obra partikularretara (1. lerroa), obra komunitarioetara (2. lerroa) eta birgaitze integraleko jarduketetara (3. lerroa) bideratuak.

1. lerroaren barruan, 3. motako jarduketak dira etxebizitza barruko irisgarritasuna hobetzera bideratutakoak: komunak egokitzea eta oztopoak kentzea.

2. lerroaren barruan, 3. motako jarduketak dira eraikinaren irisgarritasuna hobetzera bideratutakoak: igogailuak instalatzea edo berritzea, oztopo arkitektonikoak kentzea, ekipoak berritzea eta seinaleak jartzea.

Jabekideen erkidegoarentzako laguntzak aurrekontu babesgarriaren % 40koak dira, gehienez 3.000 euro etxebizitza bakoitzeko edo 30.000 euro atari bakoitzeko. Gainera, diru-sarreraren baldintzak betetzen dituzten pertsonen itzuli beharrik gabeko dirulaguntzak jaso ahal izango dituzte.

Nabarmenezkoa da 65 urtetik gorako pertsonentzako eta mugikortasun murriztua edo desgaitasun sentzoriala duten pertsonentzako irisgarritasuna sustatzeko dirulaguntzen lerro berezia, irisgarritasunari egotz dakioken aurrekontu babesgarriaren % 100era arte estal dezakeena.

Donostiako Udalak aurreikusi du Eusko Jaurlaritzarekin lankidetzan arituko dela laguntza-programa horiek ahalik eta gehien zabaltzeko, batez ere kolektibo ahulenen artean. Elkargo profesionalen eta Hirugarren Sektore Sozialeko erakundearen laguntza izango da.

Estrategiaren garapena

2. ARDATZ ESTRATEGIKOA: Eraikitako parkearen gaineko jarduketak eta hiri-berroneratzea

2.1 estrategia. Eraikinen eta etxebizitzaren irisgarritasuna hobetzen laguntzea, jarduketak auzorik eta kolektibo ahulenetan ardatzuz

2.1.2. ekintza. Irisgarritasuna hobetzeko laguntza eta aholkularitza

Erakunde arduradunak

- **Udala (Etxebizitza eta Gizarte Zerbitzuak), Hirugarren Sektore Soziala, GFA eta Eusko Jaurlaritza**

Helburua

300 laguntza-zerbitzu

Abiapuntuko egoera

Araudia eta laguntza-programetarako eskatzen den dokumentazioa konplexuak dira, eta finen administrazioek zeregin garrantzitsu hori betetzen duten arren, figura hori ez dagoen erkidegoetan, edo banakako laguntza-eskaeren kasuan, kolektibo ahulenei zailtasunak dituzte dirulaguntzak eskuratzeko.

Ekintzaren deskribapena

Birgaitzeko laguntza-programei eta beste laguntza batzuei ahalik eta zabalkunde handiena emateaz gain, dirulaguntzak izapidetzeko garaian laguntza ematea aurreikusten da, batez ere kolektibo ahulenei. Lan horretarako, Hirugarren Gizarte Sektoreko erakundeekiko lankidetzak bultzatuko da, eraikinetan eta etxebizitzetan irisgarritasunaren arloan aholkularitza- eta laguntza-sinergiak sortzeko.

Batzuetan, herritarrek ez dakite zer aukera dituzten irisgarritasun-baldintzak hobetzeko, ez Eusko Jaurlaritzaren laguntzak, ez eta Udaleko eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Zerbitzuen bidez lor ditzaketen dirulaguntzak ere.

Laguntza-neurriak eta birgaitze-jarduketak baliagarriak dira pertsonen beren etxebizitzetan ahalik eta luzaroen bizi dezaten, erosotasun- eta irisgarritasun-baldintza egokietan.

2.1.3. ekintza. Birgaitzea bultzatzeko zerga-neurriak

Erakunde arduradunak

- **Udala**

Helburua

Araudia berrikustea

Abiapuntuko egoera

Zergak formula egokia dira jarduera jakin batzuk sustatzeko. Birgaitzearen kasuan, udalak hobariak aplikatzen ditu Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zergan (EIOZ) eta Ondasun Higiezinaren gaineko Zergan (OHZ).

Ekintzaren deskribapena

Udalak birgaitze-jarduerak sustatzen jarraitzea aurreikusten du, EIOZen eta OHZn hobariak aplikatuz.

Estrategiaren garapena

2. ARDATZ ESTRATEGIKOA: Eraikitako parkearen gaineko jarduketak eta hiri-berroneratzea

2.2 estrategia. Etxebizitza-parkearen energia-eraginkortasunaren hobekuntza bultzatzea

2.2.1. ekintza. Eusko Jaurlaritzarekin eta elkargo profesionalekin lankidetzan aritzea, energia-eraginkortasuna hobetzeko dauden dirulaguntzen berri emateko

Erakunde arduradunak

- Udalak, Eusko Jaurlaritza, elkargo profesionalak

Helburua

750 kontsulta erantzutea

Abiapuntuko egoera

Parke zahartu batek, Donostiakoak bezala, defizit handiak dakartza energia-eraginkortasunaren arloan, eta horrek, alde batetik, kaltea eragiten dio ingurumenari, eta, bestetik, energia-kontsumo handiagoa dakar familientzat eta/edo erosotasun txikiagoa, batez ere energia-fakturaren iguera ordaintzeko baliabiderik ez duten familia ahulenetan.

Ekintzaren deskribapena

Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2021eko Aginduak etxebizitza eta eraikinak birgaitzeko, eta irisgarritasunerako eta energia-eraginkortasunerako jarduketa babesgarrietarako finantza-neurriak arautzen ditu.

1. eta 2. lerroetan, 2. motako obrak dira energia-eraginkortasuna hobetzera bideratutako jarduketak. 3. lerroak birgaitze integrala eta eraginkorra aurreikusten du.

Donostiako Udalak neurri pasiboak (eraikinen inguratzailearen gaineko jarduketak) eta aktiboak (energia-instalazioak) barne hartzen dituzten birgaitze-jarduerak bultzatzen jarraitzea aurreikusten du, energia-eraginkortasuna hobetzeko.

2.2.2. ekintza. Efizientzia energetikoko irizpideen arabera birgaitutako etxebizitzaren energia-monitorizazioa bultzatzea

Erakunde arduradunak

- Udalak, Eusko Jaurlaritza

Helburua

20 eraikin

Abiapuntuko egoera

Eusko Jaurlaritzaren dirulaguntzen 3. lerroak, birgaitze integrala eta eraginkorra sustatzera bideratutakoak, eraikinei edo eraikin-multzoiei eragiten die, eta monitorizazio-sistema bat instalatzea jasotzen du, birgaitutako eraikinen energia-eraginkortasunaren hobekuntza egiaztatzea eta kuantifikatzea ahalbidetuko duena.

Ekintzaren deskribapena

Udalak, ahal den neurrian, horrelako jarduketa integralak bultzatuko ditu, eraikinen eta etxebizitzaren irisgarritasuna bermatzeko, erosotasuna eta bizibaldintzak hobetzeko eta familiek aurrezteko ahalbidetzeko, eraikinen energia-eraginkortasun handiagoari esker.

Hala ere, jarduera horiek hasierako ordainketa handia eskatzen dute, eta aurrezkiak ez dira nabaritzen inbertsioak egin eta urte batzuk igaro arte. Hori dela eta, jabeen erkidego askok ez dute horrelako jarduerarik egin nahi.

Udalak aurreikusten du Eusko Jaurlaritzarekin lankidetzan aritzea laguntza-programa horien zabalkundean, eta programara atxikitako eta monitorizatuta dauden eraikinen kopurua handitzen saiatzea.

Estrategiaren garapena

2. ARDATZ ESTRATEGIKOA: Eraikitako parkearen gaineko jarduketak eta hiri-berroneratzea

2.3 estrategia. Lehendik dauden etxebizitzak zatitzea eta lokalak etxebizitza bihurtzea sustatzea

2.3.1. ekintza. Lehendik dauden etxebizitzaren zatiketa bultzatzen jarraitzea, eta araudia aldatzeko aukera eta bideragarritasuna aztertzea, zatitutako edo bereiztutako etxebizitzaren bat etxebizitza babestu gisa kalifikatzeko

Erakunde arduradunak

- Udalak, erakunde pribatuak

Helburua

500 etxebizitza

Abiapuntuko egoera

Donostiako zenbait gunetan, hirigunean esaterako, tamaina handiko etxebizitzak daude, eta horietako askotan pertsona bakarra bizi da. Etxebizitza horien banaketak, udalerriko etxebizitza kopurua handitzeaz gain, etxeen eraginkortasun energetikoa areagotzen laguntzen du.

Erdialdeko auzo batzuen zahartzeak eta pertsona bakarrek etxeen kontzentrazioak azterketa xehea eskatzen dute. Etxebizitza horien portaera, birgaitzea, zatiketa eta okupazio berria erabakigarria izan daiteke etorkizun hurbilean etxebizitza-politikari dagokionez.

Azken urteotan, udalak zatitu daitezkeen etxebizitzak identifikatu ditu, horien banaketa horizontala errazteko araudia aldatu du (eraikuntzako ordenantza osagarriak) eta 1.000 etxebizitza zatitu ditu.

Ekintzaren deskribapena

Udalak lan proaktiboarekin jarraitzea aurreikusten du, etxebizitza gehiago identifikatuz eta erakarriz, banaketa horizontala egiteko.

Zehazki, 500 etxebizitza berri lortzea aurreikusten da, lehendik zeuden etxebizitzak zatitzeari esker.

Obra horiek egitea errazteko, Etxegintzak aldi baterako birkokatzeak hitzarmenak sinatuko ditu, pertsonak ezin baitira beren etxebizitzetan bizi obrak egiten diren bitartean.

Gainera, bakarrik bizi diren 64 urtetik gorako pertsonak okupatutako etxebizitzei buruzko azterlan espezifiko bat egingo da.

